

B

BARREN

TOKIKOM

Taldean errazago



SANTOS



nuvan

altzari, proiektu eta sukaldeak

Basarte, 3 - 943 033 672



#SagardoEguna

EIBARREN

EUSKAL HERRIKO SAGARDO GORENAK
SAGARDOEN EUSKAL SELEKZIOA

entelatzailen:
eta
kitto!
Euskara Elkartea

Urriak

4

zapatua

12.00-14.30
UNTZAGAN 19.00-amaitu arte



AGORRENA ALZUELA BARRAIZTEGI AGRISTAN EGI LUZE GAITZIATEGI GAZTARAGA GURUTZETA IJASTEA OINZUA SARRAZA TINDUA ZUBAK

Häuek izan dira aukeratuak
Probarik gogorrenak gaintu dituztelako
Kalitate eta profesionaltasunean nagusi direlako
Horregatik daramate Sagardoen Euskal Selekzioaren txapel beltza.

loguntzoileak:





**Ainhoa
Lendinez**

Uda atzean utzi, eta, berriz lasterketen harian, lñi? Orain bi aste Uhartan bigarren eta iragan igandean Aistian garaile, bejondeizula!

Sakanako haranean malda piko ikusgarriak dauzka San Donatok. Arnasestu ederrean ibili naiz beti, paisaia bukoliko horretan. Podiumeko argazki zenbait ikusi ditut, eta neure harridurarako, lehen kajoia hutsik ageri da horietako batean. Ez zion, bada, garaileak opariari uko egingo, ezta? Gerrogo jakin nuen irabazlearentzat ez zela bereziki samurra izan helmugan sartzeko uea.

“Ikuskizunaren aitzakian, ez ote gara ari Tour erabat artifizialez gozatzen?”

Gogoan daukat, 2011.urtean, Arrigorriagako duatloian Villabonako eta Lazkaoko bi korrikalari handik positibo eman zutenekoa. Zer ari da gertatzen, lñi? Ikuskizunaren aitzakian, ez ote gara ari Tour erabat artifizialez gozatzen azken urteotan? Lagun batek asteon esan dit ederra litzakeela txirindulariak zitzadarik gabe ikustea lehian, etapak zortzi ordu iraun ordez, hogeita lau iraun beharko balute ere. Begirazunez begiratuta ere, gezur eta tranpa asko onartzen ditu egungo gizarteak: politikari eta kargudun askoren ustelkeria, banketxeen (eta ez banketxeetako) lapurretak... ez ote da, dopina ere, onartutako tranpa bat? Interesak, presioa, gizarte lehia, heziketa, handinahia. Kirolaria, protagonista baino gehiago, kate luze ilun baten azken begia baino ez dela iruditzen zait askotan. Zalantza asko dauzkat auzi honen inguruan; ez horrenbeste, tranpa horiek kirol “ez profesionalean” atzematen direnean.

Nahiago txapeldunorde ondradu, txapeldun kirastun baino... ala?



**Iñigo
Lariz**

Udako oporretatik eguneroko errutinara itzuli gara jada, eta horrek, nire kasuan behintzat, entrenamenduetara eta lasterketetara itzultzea dakar. Esaerak dioen moduan, gustuko tokian aldaparik ez!

Entrenamenduekin gorputza estutzea benetan gustura egiten dudan zerbait da, eta ohartua nago masokismo puntu bat ere badudala izugarri gozatzen dudalako sentsazio horrekin. Baina azken aldian suertatzen ari diren zenbait gertakarik kirol lehiarekin mesfidati egin naute. Azken urteetan kirol herrikoiaren hazkundea oso nabarmena izan da, eta horrekin batera dopin kontrolak egiten hasi zirenetik beti egon izan da positibo eman duenik. Gizartean norbere poltsikoa betetzeko edo edozein motatako onurak izateko hainbat tranpa, us-telkeri kasu edo azpijoko egon den moduan.

“Kirolean ere ongoseak itsututa baloreak galdu eta tranpak egiteko prest daudenak badaude”

Orain gutxi, Erandion ospatutako herri kirol jardunaldi batean idipare dotorea hil zen. Antza denez, gehiegizko anfetamina dosiaz dopatu zituzten lehiaketan emaitza onena lortu asmoz eta animalien gorputzak ez ziren gai izan horrelako astakeria jasateko. Garaipena eta ospearean ordez, animalien biziaren amaiera ankerra eta idi-demetako tranpak gizartearen begien aurrera ekartzea lortu zuten era horretan. Guzti horren atzean ikuskizuna ematea baino zerbait gehiago dagoe-la esango nuke: handinahia eta ongosea. Kirolean ere, gizarteko beste esparru askotan bezala, aipaturiko ongose horrek itsututa baloreak galdu eta edozein modutako tranpak egitera prest daudenak egon badaude. Handinahia puztu asmoz dabilta.





MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak erortzen
Lantekura: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra

**GRUP
VILARCHAO**

San Roke, 7 behea
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 749 670

Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriguarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eskutitzailearen Topogonua

LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen **IRITZIA** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Eskerrak eman nahi dizkiet Marijo, Merce eta Isari, kintoen bazkaria antolatzeagatik. Den oso ondo irten zen, eta primeran pasatu genuen. Mila esker.

Lorea San Martin ☺

Manifestazioan izango gara, eta zu?

Zapatuan, urriaren 11n, Arnaldo eta beste lau presoren askatasuna eskatzeko manifestazioa izango da Elgoibarren. Nik uste badaudela nahikoa arrazoi manifestaziora deitzeko eta bertara joateko. Baina nik neure arrazoiak emango ditut.

Bost urte dira Arnaldo kartzelaratu zutela herri honetara bakea ekartzen saiatzeagatik. Bost urteko kartzelaldia: 1.825 egun emazte, seme-alaba, guraso eta familiagandik urrundua. Bere urterik onenak kartzelan ematen ari da batzuen kapritxoz. Han dagoen bitartean ama hil zaio eta aita gaixorik dauka ospitalean. Jarrera hau mendeku ikuspegitik uler daiteke bakarrik. Ez da bidezkoa. Ez da justiziazkoa.

Ez dakit dakizuen zein gogorra den kartzelan egotea. Nik neuk ere ez dakit, baina saiatzen naiz bere lekuan jartzen eta, hala ere, ez da erraza imaginatzea. Egun asko dira barruan egoteko eta are gehiago atxilotzea ez bada bidezkoa. Zenbat ordu lau paretan artean? Berrogeita hiru mila eta zortzirehun. Bai, ondo irakurri duzu: 43.800 ordu. Egin proba ea bostera iristen zaren.

Bitartean zer egin dezakegu elgoibartarrok? Eskuak gurutzatu eta itxaron? Norbaitek esan dezake ez dela gure arazoa. Errespetu osoz, nola ez da izango? Horren aurrean guk ez badugu ezer egiten gu ere konplizeak gara, nolabait, egoera onartzen dugulako. Hurrengoan gutariko edozein izan daitekeelako.

Zer egin dezakegu, orduan? Besterik ezetan gure ezadostasuna azaldu manifestazioarekin bat eginez. Elgoibartarrok erantzun zabal eta bateratua eman behar dugu. Denon erantzukizuna da. Bere ideekin ados egon ala ez. Denok elkar gaitetzen, zalantzarik gabe. Zapatuan zu eta ni, gu, han izango gara, Arnaldok etxean egon behar duelako.

Alberto Agirreazaldeggi ☺

Ongarri zineklubari

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiot Ongarri zineklubari, zirkuito komertzialetik kanpo dauden filmak Elgoibarren ikusteko aukera eskaintzeagatik. Bestalde, Iñaki Agirrerren lana nabarmendu nahiko nuke: Ongarri zineklubak martxan daraman urte hauetan guztietan kolaboratzaile eta laguntzaile asko izan ditu, baina Iñaki bera hortxe egon da hasieratik egundaino, tinko eta firme. Egitasmo honek luzaroz izan dezala ikusleen erantzuna.

L.B. ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



Albitxuriko enpresa bategen esan duenez, ingurunea zikinkeriaz beteta uzten diete: "Albitxuri industrigunean biltzen diren ikasleek zikinkeriaz beteta uzten dute ingurunea. Eskertuko genuke bakoitzak bere zaborra jasotzea eta ingurua txukun lagatzea".



Santa Ana kaleko espaloia konpontzeko obrak ez dituzte amaitu: Urtebete baino gehiago da Santa Ana kaleko espaloia zulatuta dagoela, eta oraindik konpondu gabe dago. Hesiz inguratu zuten zuloa, eta horrela dago luzaroan. Udalaren eta Visesa enpresaren arteko arazoren bat dela uste, baina hemengo bizilagunok ez daukagu horren errurik eta uste dugu ez dula horrelakorik merezi. Eskertuko genuke ingurune hau lehenbailen konpontzea". **BARREN** Udalarekin harremanetan jarri da, eta **Rikardo Garate Hirigintza Saileko** arduradunak esandakoaren arabera, hori **Visesaren** arduran dago, eta Udalak ez dauka zerikusirik. **Visesako** arduradunekin konpondu behar direla esan dute Udaletik.



Kultur Etxe aurreko eskultura bat solte dago: "Kultur Etxe aurrean dagoen **Andraderen** eskultura bat solte dago. Umeak ibiltzen dira eskulturarekin jolasean, eta egunen baten norbaitek mina hartuko du. Udalari eskatu nahi diogu eskultura hori ondo lotu dezala. Mila esker". Udaletik jakinarazi dute begiratuko dutela eskultura, eta egin beharreko lanak egingo dituztela.



Udaleko txistulari taldeak zergatik ez du jotzen igande eta jai egunetan?: Bizi guztian entzun izan dugu txistu alborada jai egunetan. Zer gertatzen da ohitura horrekin ez jarraitzeko? Udaleko Kultura Sailera jo du **BARREN**ek erantzunaren bila, eta Udal txistulari taldeko arduradunaren erantzuna eman digute. Harek esandakoaren arabera, Udal Txistulari Taldeak igandero jotzen du, Bandak kalejira egiten duenean izan ezik; orduan Dultzaineroak irteten baitira. Euria egiten baduenetan ez dira irteten, edo salbuespen gisa, nonbaiten jo behar dutenean".



‘Bateragune auzikoak’ aske laga ditzaten exijitzeko manifestaziora deitu dute Elgoibarren

Urriaren 11n izango da manifestazioa, 17:00etan

Bateragune auzian auzipetu eta kartzelatutako bost lagunak aske uzteko eskatzeko manifestaziora deitu du beste behin ere Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak, kultura, gizarte eta politika arloko dozenaka lagunek babestuta. Urriaren 11rako egin dute deia. Manifestazioa Kalegoen plazan hasiko da, 17:00etan, eta dagoeneko erakunde eta norbanako ugari agertu diote atxikimendua deialdiari.

Joan zen zapatuan egin zuten prentsaurrekoa Txarriduna hotelean, eta Arnaldoren aldeko plataformako kideekin batera, atxikimendua eman duten hainbat lagun ere izan ziren ekitaldian. Babesa agertutako izenean, Laura Mintegi EHBILDUKo legebiltzarkide izandakoak eta Txiki Muñoz ELAko idazkari nagusiak irakurri zuten agiria. *Bateragune auzian* preso dauden Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Rafa Diez, Miren Zabaleta eta Arnaldo Otegi "Euskal Herriak bizi duen itxaropen eta ilusio egoeraren erantzule" direla esan zuten eta bake, askatasun,



berdintasun eta giza eskubideekiko izan duten konpromisoa "zalantzarik gabea" dela aldarrikatu zuten. Horregatik, berehala aske laga ditzaten eskatu zuten, haiek libre uzteak "elkarbizitzarako eskenategia" indartzen laguntzen duelakoan. Era berean, arrazoi politikoengatik kartzelan dauden presoentzako "irtenbide integrala" emateko urratsak ere eskatu zituzten. Ekitaldian gogoan izan zuten, bestalde, kartzelan gaixo dagoen Sebas Etxa-

niz preso elgoibartarra ere. Gaixo dauden presoak libre lagatzeak elkarbizitza indartzen lagunduko lukeela ohartarazi dute deitzaileek eta presoek giza-eskubideak urratzeari uzteko eskatu zuten.

Atxikimendu zerrenda

Manifestazioarekin bat egin dutenen artean izen ezagun ugari daude, www.arnadotegi.com-en ikusi daitezkeen.

Stock feria antolatu du Txankakua merkatari elkarteak biharko



Txankakua merkatari elkarteko dendariak kalera irtengo dira bihar. Herriko merkataritza sustatzeko asmoz, stock feria antolatu dute, eta Le-kueder parkean jarriko dituzte produktuak salgai. Era guztietako merkata-

riek hartuko dute parte, eta mota guztietako produktuak erosteko aukera egongo da. Jantziak, oinetakoak, pastelak, opariak... Hauek dira aurten parte hartuko duten komertzioak: Alire estetika, Casa Astigarraga, Ecenarro

mertzeria, Ene Bada, Evoka shoes, Ferpi modak, G & M jantzidenda, Garate jantzidenda, Hazten, Ipintza, Iriondo kirolak, Klitz, Luvik oinetakoak, MG burdindenda, Moma jantzidenda, Muruamendiaraz, Pitxintxu, Sara jantzidenda, Skandalo, Urratsak oinetakoak eta Zebra jantzidena.

10:30etik 14:30era izango da feria. 11:00etatik aurrera umeentzako jolasak eta tailerrak egingo dituzte, eta Txankakuako maskotak ere kalean ibiliko dira. 14:00etan 600 euro zozketatuko dituzte erosketa txeketan, eta saria eskuratzeko irabazleak bertan egon beharko du.

Goratu enpresaren pabilioia miatu du Guardia Zibilak, erabilera bikoitzeko tresnak Asiara saldu dituztelakoan

Zuzendaritzako hiru kide deitu ditu epaileak deklaratzera

Guardia Zibilak Goratu enpresak Lerunen duen pabilioia miatu zuen martitzenean, “erabilera bikoitzeko tresnak” Asiako herrialdeetara saldu dituztelakoan, tartean Iranera. Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Sailak bahimendua jarrita dio Irani, eta hara saltzeko baimen bereziak behar dira. Erabilera bikoitzeko materialak industrian erabiltzeko makinak egiteko erabili daitezke, baina baita armak egiteko ere. Ezaugarri horietako materiala atzerrian saltzen denean kontrolatu beharra dago, jakiteko zein erabilera emango dioten, tankeak edo gerra-gurdiak egin baititzakete, besteak beste. Azken bi urteotan Euskal Herriko hainbat enpresa miatu dituzte, eta azkena Goratu izan da. Guardia Zibila epailearen aginduz sartu zen enpresan, eta ordengailuak erabiltzea debekatu zien langileei. Bulegoak miatu eta orain dela pare bat urte Asiara saldutako hainbat



makinei buruzko informazioa eskatu zuten polizia. 15:00ak aldera arte jardun zuten miaketa lanetan eta hainbat material eraman zuten. Zuzendaritzako

hiru kide deitu ditu epaileak deklaratzera. Antzeko beste kasu batzuetan isunak jarri dizkiete enpresei eta ikusteko dago Goraturekin zer egingo duten.

Burmuina lantzeko gimnasia ikastaroa, jubilatuen egoitzan

Atzo hasi zen burmuina lantzeko gimnasia ikastaroa jubilatuen egoitzan, baina antolatzaileek jakinarazi dute oraindik badagoela izena emateko aukera. Burmuina lantzeko ariketak egin eta eguneroko gauzak hobeto gogoratzeko teknikak landuko dituzte. Saioak eguenetan izango dira, 15:30etik 16:30era. Jubilatuta dagoen edonork hartu dezake parte, 615 738 381 telefonora deituta edo egoitzan bertan izena emanda.

San Antolin jaietako errifaren irabazlea ez da agertu

San Antolin jaietan bi lagunentzako Kanariar uharteetara bidaia zozketatu zuten, eta 2.379 zenbakia izan zen irabazlea, baina ez da oraindik agertu. Erreserbakoa 1.718 zenbakia da.

‘Dolmenen ibilbidea’ ezagutzeko bisita gidatua, domekan

Karakate eta Hirukurutzeta arteko *Dolmenen ibilbidea* ezagutzeko bisita gidatua antolatu du domekarako Debarbarrena Turismo elkarteak. Hiru ordu eta erdiko ibilaldia izango da. Karakateko aparkalekutik abiatuko dira, eta Hirukurutzetara arteko tumulu eta trikuharriak bisitatuko dituzte. Bisita doakoa izango da. Izena emateko 695 78 36 56 telefonora deitu behar da.

Euskara arloko diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Udalak euskara arloan norbanakoentzako ematen dituen diru-laguntzak eskatzeko epea urriaren 31ra arte dago zabalik. Laguntza horiei buruzko informazioa Udalaren webgunean (www.elgoibar.org) edo Euskara Sailean bertan eskatu daiteke (943 744 366).

JOSU WALIÑO

PUNTUEUS-EKO ZUZENDARIA

IMH Makina-erremintaren Elgoibarko Institutuak antolatutako 30+10 mintegiaren barruan, '.eus' domeinuaren inguruko hitzaldia eskaini zuen atzo Josu Waliño (Zumaia, 1972) PuntuEus egitasmoaren zuzendaria. '.eus' domeinuaren garrantziaz eta domeinuzena erregistratzeko eman beharreko pausoez hitz egin digu Waliñok.

**“Balioa ematen digu
' .eus' domeinuak eta
onuragarria da
euskararentzat eta
enpresentzat”**

Zer da '.eus' domeinuaren proiektu honekin lortu nahi duzuen?

Euskararen komunitateari Interneten leku bat ematea litzateke gure oinarrizko helburua, euskararen ekosistema sortzea. Nahi dugu euskarak eta euskal kulturak presentzia handiagoa izatea Interneten, presentzia izan badutelako gaur ere, baina '.com', '.org' edo beste domeinu baten menpe. Euskal kulturaren komunitatea kohesionatzen lagunduko du '.eus' domeinuak. Azken batean, euskara beste hizkuntzen mailan jarriko duen tresna da '.eus', gure lanari nazioarteko aitortza eskainiko diona. Eta horrek guztiak, jakina, berebiziko garrantzia dauka euskararen biziraupenerako.

Euskara eta euskal kulturaren presentzia indartu nahi duzuela aipatu duzu. Domeinu hau eskatzen duenaren webguneak ezinbestez izan behar du euskaraz?

Ez, baina baldintzak badaude: domeinua eskatzen duen horren webgunean euskaraz ere egin behar da edo behintzat eskatzaile horrek konpromisoa hartu behar du laster batean webgunean euskaraz ere egiteko. Eta bestela, euskaraz ez bada, gutxien-gutxienez euskarari edo euskal kulturari eskainitako webgunea izan behar du. Beraz, edonork eska dezake '.eus' domeinu bat, izan partikularra edo erakunde, enpresa, elkarte, izan hemengoa edo hangoa, baina baldintza ho-



riek betetzen baditu.

Zein fasetan gaude orain?

ICANN nazioarteko erakundearekin hiru fase egitea aurreikusi genuen. Lehenengo fasean euskararen eta euskal kulturaren inguruko eragile nagusiek hartu zuten aitzindaritza. Hor 92 erakundek 92 domeinu-izen erregistratu zituzten eta momentu honetan eurek dira '.eus' domeinua duten erakunde bakarrak. Orain, abiarazte-fasea deitzen dugunean gaude. Irailaren 16an zabaldu genuen eta azaroaren 18an bukatuko da. Tarte horretan, aipatutako baldintzak betetzen dituen edozein en-

presak, erakundek edo norbanakok domeinua eskatzeko aukera dauka eta guk arbitraje lan bat egingo dugu, bermatzeko domeinuak dagokienei ematen zaizkiela. Interneten, edozein domeinu eskatzen duzula ere, erregistratu eta berehala egiten zara izen horren jabe. Abiadura kontua da, nolabait esatearren. Guk ez genuen nahi, baina, hau lasterketa bat izatea, baizik eta domeinua eskatzen duenak erabiliko duela ziurtatzea, eta horixe bermatu nahi dugu prozedura honekin. Orain, erregistro-eskaerak jasotzen ari gara, eta azaroaren 18an aztertuko ditugu guztiak. Denak dauzkagunean denbora bat hartuko dugu domeinu izenak dagozkien elkarte edo erakundeek eskatu dituztela egiaztatze eta horren inguruan sor litezkeen gatazkak konpontzeko, eta ondoren, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean aktibatuko ditugu. Adibide batekin azalduko dizut: Bilbo.eus eskatzen badute Bilboko Udalak eta Bilboko Kafe Antzokiak guk Udalarari emango diogu, nahiz eta Kafe Antzokiak lehenago eskatu.

Izen batzuk gorde dituzue beraz.

Gorde ez dugu izenik gorde; egingo duguna da batzuk babestu. Protokoloa ezarri dugu. Badaude erakunde batzuk lehenasuna dutenak, eta udalak dira horietako batzuk. Domeinu-izen geografikoekin konpetentzia zuzena duten administrazioek lehenasuna dute beste aurrean, eta gauza bera gertatzen da marka erregistratuta duten enpresekin. Badauzkagu beste izen batzuk ere blokeatuta: euskara.eus, esaterako, baina oso gutxi dira, hamar bat.

Gure kasuaz galdetuko dizut, beste asko ere egon daitezkeelako gure antzera erregistro eskaera noiz aurkeztu ez dakitela. Zuk esandakotik ondorioztatzen dut www.elgoibarren.net-ek, esaterako, orain aurkeztu beharko lukeela eskaera gerta daitezkeelako beste norbaitek domeinu-izen hori eskatzea eta ondorioz gaur arte erabili duguna erabili ezinda gelditzea gu.

Hori da. Abenduaren 3an hasiko da fase irekia. Beste era batera esanda: edozein domeinu erregistratzeko modu arrunta. Hau da, iristen den lehenak erregistratuko du domeinua. Beraz, abenduaren 3tik aurrera etorriko balitz norbait eta elgoibarren.eus domeinu-izena eskatu, berarentzat izango litzateke.

Eta zer gertatzen da gure gaurko domeinuarekin?

Ezer ez. Beste domeinu horiek ere izan ditzakezu '.eus'-arekin batera, eta guztiak webgune berera eramango zaituzte. Zuk erabaki behar duzuna da zein iragarriko duzun domeinu nagusizat. '.eus' aukeratzeko duzun momentuan, www.elgoibarren.net markatzen duen hori zuzenean berbideratuko du sistemak www.elgoibarren.eus gunera. Guzti honekin zer lortu nahi dugun? Ahalik eta webgune gehien egotea Interneten euskaraz, eta guztiak '.eus' txapelaren azpian egotea, euskararen marka horrekin.

Urtebeteko epean 5.000 domeinu inguru lortu nahiko zenituzketela esan zenuten aurkezpenean. Nola doa kontua?

Gure asmoa da urtea amaitu bitarteko babes fase honetan 2.000 domeinu-izen erregistratzea eta fase irekia zabaltzen denetik urtebeteko epean 5.000 domeinura iristea. Hasi besterik ez gara egin, eta ari gara eskaerak jasotzen. Eskaerez gain, galdera asko ere ari zaizkigu iris-

ten, eta horiei ahalik eta argien erantzuten ari gara. Interesa, baina, handia da.

Eta jendea zerk kezkatzen du gehien? Zein da sarrien egiten dizuen galdera?

Nola egin behar den. Eta erantzuna simplea da, nire ustez: beste edozein domeinu erregistratuko zenukeen bezala. Hau da, Interneten zuzenean erregistratzaile batera jota edo zure enpresaren hosting-a egiten dizun enpresaren bidez.

Diru-kontuez ere galdetuko dizute, ala?

Bai, askok. Eta hor komeni da gauza bat argitzea jende batek uste duelako euskararen domeinua izate hutsagatik '.eus' garestiagoa dela besteak baino. Hori ez da egia. Egia da, bai, orain '.com' domeinu batek 5-10 euro balio dituela eta '.eus' batek ehun euroren bueltan [erregistradorearen arabera izan daiteke gutxiago edo gehiago], baina horren arrazoia ez da euskararen domeinua dela, baizik eta domeinu berria dela. Domeinu berri baten abiarazte aldirian domeinu izen kopuru bat erregistratzea lortu behar izaten da, proiektua bera finantzatzeko, domeinuaren kudeaketa garestia delako oso. Beraz, gure domeinu-izen hori garestia da orain, baina prezioa merkatzen joango da domeinu-izen kopurua handitzen doan ahala. Hori izan da domeinu guztiak gertatu den prozesu naturala.

Domeinu berri baten abiarazte aldirian domeinu izen kopuru bat erregistratzea lortu behar izaten da, proiektua bera finantzatzeko, domeinuaren kudeaketa garestia delako oso. Beraz, gure domeinu-izen hori garestia da orain, baina prezioa merkatzen joango da domeinu-izen kopurua handitzen doan ahala. Hori izan da domeinu guztiak gertatu den prozesu naturala.

Kataluniara begira gaude aspaldian. Han '.cat' dute. Zer dugu ikasteko haiengandik?

Gu lantalde berria gara eta duela gutxi hasi gara lanean, baina harremana izan dugu bai '.cat', '.gal' eta antzekoekin. '.cat'-ek, esaterako, zazpi bat urteko esperientzia dauka ja eta asko

daukagu haiengandik ikasteko. Gure asmoa haiekin batera lan egitea da, elkarlana zabaltzea, elkarrengandik ikasteko. Azken batean mezu bera transmititzen asmatu behar dugu denok. Nik '.com' baldin badaukat zergatik behar dut '.eus' galdetzen dutenei erantzun behar diegu, eta hori da hain justu ere, IMHn zabaldu nahi duguna. Guretzat IMHko jardunaldia oso garrantzitsua da enpresa mundukoak batuko direlako hor eta garrantzitsua iruditzen zaigulako haiei idea hori ondo azaltzea.

Euskarak ere balio duela alegia enpresak munduan ezagutarazteko.

Bai, hori da. Zalantzarik gabe euskarak balio du enpresa merkatuan eta bezeroen aurrean kokatzeko. Zu '.eus' domeinuarekin iritertzen bazara merkatura, naziortean adierazten ari zara euskal enpresa bat zarelara, horrek ematen duen euskal kalitatearen ziurtagiri guztiak, euskal enpresen berme guztiak. Eta hori nazioarteari begira ari zarenean, baina barrura begira ari zarenean, bezeroari ari zatzaizkio esaten bere hizkuntzan lan egiten duzula eta produktu lokalarekin ari zarelara. Hori '.cat'-arengandik ikasi dugu. Momentu honetan '.cat' estatuan gehien saltzen den hirugarren domeinua da, eta '.cat' erregistratzen duten %60 enpresak dira, horrek esan nahi duen guztiarekin. Beraz, zergatik behar dugu '.eus' bat? Bada, balio bat ematen digulako, nortasun bat adierazten duelako eta hori onuragarria delako bai euskararentzat eta baita gure enpresa edo erakundearentzat.

“Azaroaren 18ra artekoan 2.000 domeinu-izen erregistratzea da gure asmoa”

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK HIZPIDE GAUR MENDARON

Energia berriztagarriei buruzko bi hitzaldi izango dira gaur iluntzean Mendaron, bata bestearen atzetik. Alain Ulazia Eibarko unibertsitate eskolako Energia Berriztagarrien Graduko irakasleak energiaren arazoak ohartaraziko du aurrenekoan eta munduan zehar energia lokal garbia baliatzeko egin diren hainbat asmakizunen berri ere emango du. Jarraian, Pablo Rodriguez injineruak Mendaroko Plaza auzoan energia minihidraulikoa baliatzeko egindako proiektua eta Arnoko artadiak, basoari berari lagun diezaiokeen era batean, biomasarako leukakeen potentzialaren analisisa ere egingo du, Alain Ulazia irakaslearen laguntzarekin. Hitzaldiak udaletxean izango dira, 20:00etatik aurrera. Bi protagonistak batu ditugu eta arratsaldekoaren inguruan jardun dute haiek, librean Alainez eta jarritako galderari erantzunez Pablok.

Ainara Argoitia



Eibarko Industria Ingeniaritza
Teknikoko Unibertsitate
Eskolako irakaslea


Alain Ulazia

*E*nergy in Nature and Society liburuan Vaclav Smil ikerlariak sistema konplexuen energetika orokarra aztertzen du. Hau da, gure planeta sistema fisiko konplexutzat hartuta natura elkarrekintza erlazio anitz dituen sare ez-determinista gisa kontsideratzen du energiaren forma ezberdinak aztertzeko. Halaz, energia eta elikadura sorburu moten eta hauen inguruan antolatutako gizarte moldeen arteko harreman bitxia deskribatzen du.

Badago liburu horretan grafiko zirrarragarri bat. Zenbait ugaztunek egunero egiten duten distantzia dago ardatz bertikalean, eta ardatz horizontalean animalion pisua, biak eskala logaritmikoan. Elefante afrikarrak, adibidez, 1.000 kilo baino gehiago izanda egunero 10 bat kilometro egiten ditu. Kanguru arratoi txikiak, aldiz, 100 gramo ingururekin, kilometro bat baino gutxiago ibiltzen dira egunero. Gizakiaren pisu eskalan dabilzan ugaztun haragijaleek (hienek eta koioetek esaterako) 10 km baino gehiago egiten dituzte hara eta hona, eta orangutanek, hominido belarjale jatorrek, 500 metro baino ez dituzte behar eguneko premiak asetzeko.

Gizakia, bihankako lumagabe hori, ez da ageri grafiko honetan. Baina imajina dezakegu batazbesteko langile okzidental bakartia kotxez lanera bidean egunero 10 kilometroak egiten, hiena haragijale baten antzera, distantzia luzeagoa ez bada. Gainera, badaude lau erroberatan egunero 100 kilometro egiten dituzten gizakiak, eta esaten dutenez baita hegan milaka kilometroko bideetan dabilzanak etxetik lanera eta lanetik etxera.

Zer esango luke balizko ikerlari martiztar batek datu hauei erreparatuta? Bada, gizakia dela bere biziraupena ziurtatzeko alferrik gehien ibiltzen den ugaztuna, hau da, tontoetan tontoena. Zergatik ibiltzen da gizakia hara eta hona arrapaladan bere ingurua bere alde transformatzeko adimena duenean? Zenbat energia, haizeak, eguzkiak eta urak bertatik bertara daskarkiona, uzten du alferrik galtzen maite dituenekin egoteko denborarekin batera? Ongizate Gizarte adoratua beharrean noiz izango du erredutzat Ongizate Oragutanartea?





Pablo Rodriguez

Mendarori buruzko lan batekin graduatu da Pablo Rodriguez (Eibar, 1990) injineritzan eta gaur proiektu hori aurkeztuko du Mendaroko udaletxean (20:00), proiektu zuzendaria izan duen Alain Ulazia irakaslearen laguntzarekin. Plaza auzoan energia hidraulikoa aprobetxatzeko proiektua da Rodriguezena, eta nahiko luke norbaitek energia berriztagarriak sustatzeko baliatzea.

“Mendarok ezaugarri onak ditu energia berriztagarriak sustatzeko”

Zer ezaugarri ditu zure proiektuak?

Mendaron energia berriztagarriak sustatzeko proiektua da nirea. Plaza auzoan energia hidraulikoa eta biomasa-energia [Landareek fotosintesi-prozesuan karbono dioxidoa eta eguzki-energia erabiliz sintetizatzen duten materia organikoan metaturiko energia berriztagarria] erabiltzeko aukerak aztertu nituen. Lehenengo eta behin, ikerketa hidrografiko bat egin genuen Goikola baserria baino pixkat gorago presa bat eraikitzea legokeen ikusteko. Prezipitazioa, azalera... hartu genituen kontuan, baina irten zitzaigun emaitza ez zen horren ona izan. Beheragora jo genuen orduan, Artañola baserri ondora. Han, antzina errota bat egon omen zen, eta hura berreskuratzea egongo ote litzatekeen aztertu genuen. Presa hori eraiki eta bide batez antzina bazter hartan egon zen piztina natural bat errekueratu nahiko genituzke. Kontua da *Paraisora* doan gurutzbidean ura metatzen dela errekan harri handi batzuek daudelako ipinita ur-lasterrak sortzeko. Huraxe litzateke turbinara doan uraren sorburua, erreka ura metatuko lukeena.

Aztertu ditugu hango baldintzak eta kalkulatu dugu presa hori sortzeko zer kostu izango lukeen, zein inbertsio egin beharko litzatekeen, zein epetan amortizatuko genukeen gastua eta zenbateko errentagarritasuna izango lukeen, eta emaitza benetan izan da ona.

Zeintzuk dira emaitza horiek?

Francis turbina bat eta 200 metroko eta 20 bat zentimetroko diametroko hodi batekin eraikiko genuke behar den instalazioa eta zentral hori eraikitzeak 75.000 euroko inbertsioa eskatuko luke, baina hamar-hamarka bat urtean amortizatu genuke, eta hogeit urtera, dirua ere eman- go luke. Eta garrantzitsuena kutsadura murriztu eta energiaz hornituko genituzke etxe asko. Proiektu hauek, baina, nahiz eta exekuziorako eginak egon, ia inoiz ez dira gauzatzen, ura tartean dagoen edozein ideiak prozesu burukratiko geldo bat eskatzen duelako ingurumen le- geei dagokionez.

Balitzko zentral horrek auzo osoa hornituko luke energiaz?

Ez daukat proiektua orain aurrean, baina egiten zen inbertsiorako emaitza oso positiboak zen. Plaza auzoko argiteria publiko guztia hornit- zeko aukera legoke, adibidez.

Ura eta biomasa erabiltzea proposatzen duzu energia sortzeko. Men- darok bi horietatik badu nahikoa baliabide. Salgarria ematen du proiektu- tuak.

Bai. Garai batean errota asko egon ziren, eta hori zerbaitengatik zen. Horra bueltatu beharko genuke, energia garbia sortzeko baliabideak badituelako herri honek. Proiektu hau bera hor dago gogoan duen edo- zein instituzio publikok edo herri erakundek aurrera atera ahal dezan, orain ezetz iruditu arren errentagarria badelako epe motz batera begi- ratuta.

Proiektuaren parte bat Amora begira egin duzu. Azalduiguzu zertan datzan.

Arnoko artadiak biomasarako leukaketen potentziala aztertu dugu. Ar- non dena da artea, eta arte hori erreta lortuko genuke bero moduan askatzea fotosintesi bidez metatutako eguzki energia. Ibai Portuk la- gundu digu proiektu honetan, eta emaitza oso positiboak lortu ditugu, ikusi dugulako modu horretan lortutako energiarekin Mendaroko lau eraikin publiko –udaletxea, ikastola, haurreskola eta musika eskola– hornitzeko aukera izango genukeela. Ondorio horretara iritsi gara Uda- lak berak emandako kontsumo-datuak aztertu ostean.

Amoko artadia berezia da eta oker ez banago babestuta ere badago. Legeak zer aukera lagatzen du zuk proposatzen duzuna gauzatzeko?

Bai, babes komunitarioko gunea da Arno, baina bertako artadia la- gata dago basoa ez delako ja lehen bezala 'garbitzen'. Horrek sute- etarako aukerak areagotzen ditu eta sutea egotekotan balitzko kal- tea handiagotu ere bai. Basoari babesa eman lekioketen su-etenak eta garbiketa estrategikoak eginaz, hortik ateratako biomasa eraikin publikoaren berokuntza sistemetan erabiltzea litzateke gauza. Basoa- ren urteroko hazkundearen potentziala bakarrik nahikoa baino gehiago litzateke helburu hortarako. Problema handi bat dago, bain: egur hori uztiatzeko lana oso gogorra litzatekeela Arnoko malda la- karretan.

Zein da iluntzeko hitzaldian argi laga nahiko zenukeen mezua?

Energia berriztagarriak sustatu behar ditugula bai edo bai, energia- ren arazoari soluzio bat emateko.

Erretratu zaharra



1940

Aste honetako erretratu zaharra 1940. urte ingurukoa da, eta Lerungo futbol zelai zaharrean aterata dago. Gogora ditzagun zein diren gazte horiek: **Golan:** Andres Juaristi (†), Fermin Arrese, Jose Antonio Zuazubizkar, Jose Gurrutxaga, Carlos Arrese (†), Ramon Ezenarro 'Upai' eta Sebastian Etxabe (†). **Behean:** Pako Mugertza (†), 'Upai' (aita) (†), Isidoro Ortiz de Villalba 'Añana', Luis Etxeberria 'Parapan Rachi', Unastei-Erota.

 **MILAR
BIRE**

Ubitarte 11
943 741 487
bire@milar.es

Plan Renove 2014

Etxetresnak

125 eurora arteko deskontua



KORRIKEDADA

emakumeak korrika



Elgoibarko Udaleko Kirol Patronatuak eta Berdintasun Sailak emakumeak korrika egitera animatzeko ekimena jarri zuten martxan ekainean, emakumeen artean kirola egiteko ohitura sustatzeko asmoz: Korrikedada. Martitzen eta eguenetan biltzen da emakumezkoen tropela, eta Mintxeta inguruan egiten dute korrika ordubetez, Angel Lopez kirol monitorearen aholku eta gomendioak jarraituz. Parte-hartzea doakoa da, eta interesatuek Mintxetan bertan agertzea nahikoa dute parte hartzeko.

Ainhoa Andonegi

Udaleko Berdintasun Sailak emakume kirolarien taldea sortzeko bilera egin zuen iaz, besteak beste, kirol alorrean emakumeek dituzten beharrak zeintzuk ziren ezagutzeko, eta bide batez, kirol alorrean ere emakumezkoen eta gizonzkoen parekidetasuna lortzeko. Kirola egiten duten Elgoibarko emakumeekin egin zuten bilera, eta beste hainbat beharren artean, emakumeengan kirola egiteko ohitura sustatzeko beharra zegoela ikusi zuten. Hortik abiatuta, korrika taldean eta modu antolatuan egiteko geratu zen emakume talde bat, eta halaxe hasi zen Korrikedada. Hasieran emakumeak eurak soilik hasi ziren, baina berehala konturatu ziren kirol-monitore baten laguntzaz askoz errendimendu hobea lortuko zutela, eta modu horretan egitasmoak beste gorputz bat hartuko zuela pentsatu zuten. Kirol Patronatuak Angel Lopez atleta jarri zuen zeregin horretan. Umetatik aritu izan da Angel Lopez atletismoan, eta orain kompetizioa utzita badu ere, korrika egitea izugarri gustatzen zaio.

Ekainean hasi zen Elgoibarko emakumeen taldea korrika, eta egitasmoak izan duen arrakasta ikusita, irailean berriz ere jarri dute martxan egitasmoa, printzipioz urte amaierara arte. Udako gehiegikerien ostean, jende askok heltzen dio kirolari irailean, eta Korrikedadan ere sekula baino emakume gehiago batu dira opor osteko lehen saioetan. Adin eta maila guztietako emakumeak batzen dira, eta nor bere erritmoan egiten du korrika. Kirolaz gozatzea eta ohitura osasuntsuak hartzea da egitasmoaren helburua, baina txapelketaren harrak emakume horietako bati baino gehiagori egingo dio koska eta urtea amaitu aurretik ikusiko ditugu lasterketaren batean saltaka.

Aisialdiaz gozatzeko aukera eskaintzen du Korrikedadak, doan eta modu errazean. Ez da inon izenik eman behar, eta ez dago saio guztietara joan beharrik. Martitzen eta eguenetan batzen dira Mintxetan 19:00etatik 20:00etara, eta parte hartu nahi duenak nahikoa dauka han azaltzarekin Korrikedadan parte hartzeko.



ANGEL LOPEZ Korrikedadako monitorea

“Korrika egiteak engantxatu egiten du”

Umetan hasi zen Angel Lopez atletismoan, eta orain dela gutxira arte jardun du atletismoan lehiatzen. Orain, baina, Fisioterapia ikasketak bukatu eta horretan dihardu lanean. Hala ere, ezin esan atletismoa erabat utzi duenik, bera baita Korrikedadako kirol monitorea.

Nola iritsi zara Korrikedada egitasmora?

Udalak eta Kirol Patronatuak erabaki zuten Korrikedada egitasmorako kirol-monitore bat behar zela, eta niri deitu zidaten. Nire kirol ibilbidea beti egon da atletismoari lotuta, eta egia esanda, egitasmu interesgarria iruditu zitzaidan.

Hasieratik harrera ona izan du Korrikedadak. Espero zenuten horrelakorik?

Zarauzko erreferentzia geneukan eta han oso ondo funtzionatzen zuela bagenekien. Malekoian korrika egiteko batzen dira emakumeak, eta ehun bat biltzen omen dira. Elgoibarren ez genekien zein erantzun izango zuen egitasmok, baina Elgoibar herri kirolaria da, kirola egiteko ohitura eta aukera handia dago, eta 10-12 emakumeko talde bat aurkeztuko zela espero genuen. Lehenengo saiotik, baina, sekulako sorpresa hartu genuen: 42 emakume agertu ziren! Eta orain ere, uda ostean, 46 emakume batu ziren saio batean.

Nola moldatzen zara hainbeste emakumerekin lan egiteko?

Ez da erraza, ez pentsa, baina ez emakumeak direlako, asko direlako baizik. 46 pertsonako talde batekin lan egiteak zailtasunak dauzka.

Hainbeste laguneren artean, ahalmen fisikoan desberdintasunak egongo dira. Nola prestatzen duzu guztiarentzat egokia den korrika saioa?

Hori izaten da zailena. Maila fisiko onena duenetik txarrenera alde handia dago. Badaude emakume batzuk Behobia-Donostia lasterketa amaitu izan dutenak, eta beste batzuek sekula ez dute korrika egin. Badakit zein den taldearen errealitatea eta filosofia horretan moldatzen naiz. Zirkuitoa prestatzen diet, distantziak eta egin beharreko ariketak, eta partaide bakoitzak bere erritmoa jartzen du. Talde handia denez, bakoitzaren mailaren arabera talde txikiak osatzen dira, eta taldetxo bakoitzak bere erritmoan egiten du korrika. Hori oso ona da, bai beraiarentzat eta baita niretzat ere. Korrika doazenean ez dute asko hitz egiten, baina lasaitzen garenean bai, harreman ona sortu da eta talde giro horrek nire lana ere errazten du.

Nolako zirkuitoak prestatzen dituzu?

Hasieran toki lauak aukeratzen ditut. Mintxeta kanpoaldeko zirkuitoan ibiltzen gara. Egunak aurrera joan ahala hasiko naiz aldapak sartzen. Gehienak korrika egiten hasiberriak dira, eta helburua atletismoan barneratzea da, lehiaketara bideratzea baino gehiago.

Sekula korrika egin ez duen emakume bat, nola animatu daiteke Korrikedadan parte hartzera?

Korrikedadak talde baten babesa eskaintzen du, eta sekula ibili ez denari asko laguntzen dio horrek. Gaur egun *running* edo korrika egitearen aldeko *boom* moduko bat dago. Mendi lasterketetan edo herri lasterketetan ere gero eta jende gehiago ikusten dugu, eta esan daiteke korrika egitea modan jarri dela. Harrigarria da: ni atletismoan ibili nintzenean lau katuk egiten zuten korrika, eta orain jende pila bat dabil!

Korrika egiteak engantxatu egiten duela esaten dute askok. Hala da?

Bai, hala da. Korrika egiteak engantxatu egiten du. Nire ustez bi arrazoi nagusi daude: batetik, esker oneko kirola da, denbora gutxian asko hobetzen delako norberaren errendimendua. Goi mailan justu kontrakoa gertatzen da, hau da, asko entreatu behar dela, segundu gutxi batzuk hobetzeko, baina hasiberrientzat kirol egokia da. Fisikoki ez da aparteko ezer behar. Buzia kontrolatzea da garrantzitsua. Bestalde, material aldetik ez da gastu handirik egin behar, arropa eroso eta zapatilak jantzita nahikoa da.

Zenbat aldiz entzun diozu emakume bati korrika egitera irteerak lotsa ematen diola?

Askotan! Nik uste nuena baino gehiagotan! Ez nuen uste korrika egiteak horrenbesteko lotsa eman zezakeenik, eta harritu ere egin naiz hori entzutean. Nik uste dut lehenengo bi-hiru saioak egin ostean lotsa guztiak gainditzen direla.

Nola hasi zinen atletismoan?

11 urterekin hasi nintzen atletismoan, eta hamabi urtez jardun dut lehiatzen. Mintxeta atletismo taldean hasi nintzen, eta gero Realean eta Bartzelonako beste talde baten ere aritu izan naiz.

Eta orain zertan diharduzu?

Fisioterapia ikasketak amaitu nituen iaz, eta horretan dihardut lanean. Orain dela sei hilabete hasi nintzen lanean. Elgoibarren eta Zumaian egiten dut lan. Horrez gain, Korrikedadako monitorea naiz. Ezin naiz kejaratu, lan mundua dagoen bezala egonda, nire ikasketekin eta nire zaletasunarekin zerikusia duen lan batean dihardut. Pribilejiatu bat naiz.

LOREA ARENAS ETA MARIA ARRILLAGA



Lorea Arenas eta Maria Arrillaga.

Martitzena da. 19:00ak jotzeko minutu gutxi batzuk falta dira, eta hasi dira poliki-poliki Korrikedadako emakumeak inguratzen. Mintxetako sarreran batu da taldea, eta Angel Lopez kirol monitorea ere iritsi da. Eguraldi epela dago, zerua garbia eta oraindik egun argiz da. Ordubeteko korrika saioa dute aurretik. Bat, bi eta hiru! Beroketak egiten hasi dira. Suabe-suabe Basarteko etxeen artean egin dute lehenengo korrikaldia. Tarte horretan, taldeko bi emakumerekin geratu gara solasean: Maria Arrillaga eta Lorea Arenas Korrikedadaren parte hartzen duten bi emakume dira. Maria orain dela urtebete inguru hasi zen korrika, eta Lorea oraintxe hasi da kirola egiten. Bakoitzak bere eritimoa dauka, eta korrika egiteko nor bere arrazoiak ditu, baina biak bat datoz Korrikedadaren babesak izugarri laguntzen diela esatean, eta Udalarri eskatu diote egitasmo honekin aurrera jarraitzeko.

“Talde baten babesean korrika egitea askoz errazagoa da”

Maria Arrillaga

“Jendea korrika ikusten nuenean inbidia ematen zidan, eta orain dela urtebete inguru hasi nintzen ni ere korrika. Ordura arte oinez ibiltzera joaten nintzen, eta egun baten ibilbide berbera korrika egitea erabaki nuen. Neka-neka eginda amaitu nuen, baina hasiera hura izan zen gogorra. Poliki-poliki hasi nintzen. Maltzagarako bide gorrian hasi nintzen. Lehenengo bide erdia egiten nuen, gero apur bat gehiago, eta ibilbide osoa egitea lortu nuenean sekulako garaipena izan zen niretzat. Urtebetez egon naiz nire kabuz korrika egiten: egun batean lau kilometro, bestean bost, sei... Baina ez nuen ez beroketarik eta ezta korrikaldia-
ren ostean luzapenik egiten. Korrikedada hasi zenean ez nuen zalantzarik izan, eta hasieratik etorri nintzen. Angeli esker gauza asko ikasi ditut. Korrika egin aurretik eta ondoren egin beharrekoak, arnasa hartzen, ibilbideari neurria hartzen... Oso ondo moldatzen da gurekin, eta izugarri balio du. Gainera jendea ezagutu dut, eta orain elkarrekin geratu gaitzake korrika egiteko. Askotan bakarrik ez ir-tetearen etxean geratzen zara, eta talde baten babesean askoz errazagoa da. Ni oso motibatuta nago. Aspalditik neukan lasterketaren batean parte hartzeko gogoia, eta Gau Krosean hartu nuen parte. Ibilbidea probatu nuen aurrez, eta nire eritimoan ondo moldatzen nintzen. Lasterketa egunean, baina, azkarregi joan zen taldea eta ezin nuen eritimo hura segi. Gero nire eritimora jarraitu nuen eta lasterketa irabazi banu bezala sartu nintzen helmugan. Emakumeenganako tratu txarren kontrako lasterketa antolatzen ari da Udala eta han ere hartuko dut parte, eta San Silvestre lasterketa ere egin nahiko nuke”

“Lotsa gainditu eta Korrikedadara joatea erabaki nuen”

Lorea Arenas

“Nik sekula ez dut korrika egin. Lotsa ematen zidan, eta lotsagatik ez nintzen korrika egitera iriteten. Lagun batek esan zidan behin Korrikedadara zihoi-
la, eta ni ere animatu nintzen. Lotsa gainditu eta Korrikedadara joatea erabaki nuen. Eta konturatu naiz denok egiten dugula berdin korrika, batzuk besteek baino azkarrago, baina denok gara korrika egiteko gai. Batzuk aurretik joaten dira, eta besteok atzetik, ahal dugun bezala. Lehenengo egunetan gogorra egin zitzaidan, eta oso gaizki ibili nintzen aldapa txikiak ere igotzeko. Baina egu-
netik egunera hobeto ikusten dut nire burua eta horrek motibatu egiten nau. 46 lagun elkartu ginen aurreko batean, bakoitza ama baten alaba, eta jende ezezagunarekin oraindik sentitzen dut lotsa batzuetan, baina gero eta gutxiago. Oso giro ona daukagu gure artean eta gustura etortzen gara. Neguan, arratsal-
detan ilun dagoenean, edo eguraldi txarra egiten duenean bakarrik korrika egi-
tera ez nintzen irtengo, baina Korrikedadara pentsatzen dut etorriko naizela. Ko-
rrika egiteak engantxatu egiten du, eta taldeak izugarri motibatzen du. Korrika egiteko, gainera, ez da ezer behar: zapatillak jantzi eta kitto! Hogei minutu-ordu erdirekin gainera nahikoa da, eta askoz hobeto sentitzen zara zure buruarekin. Edozein animatuko nuke Korrikedadaren parte hartzera. Emakumeenganako tra-
tu txarren kontrako lasterketa uste dut bost kilometrokoa izango dela eta hori egitera animatuko naiz.”

Martitzenean hasiko dituzte Errosario kaleko jaiak

Ama Birjinari egindako lore eskaintzarekin hasiko dituzte jaiak

Martitzenean, urriaren 7an, da Errosario kaleko Ama Birjinaren eguna, eta horren harira hainbat ekintza antolatu ditu Errosarioko Jai Bartzordeak. Ama Birjinari egindako lore eskaintzarekin hasiko dituzte jaiak, martitzenean, 13:00etan, eta iluntzean salbea abestuko diote Ama Birjinari, meza ostean. Biharamunean, txokolatea banatuko dute Errosario kalean bertan, eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen Atxuxiamaika Sailak guraso eta seme-alaben arteko transmisioa sustatzeko sortutako Kiribil barraskiloa ere jaira batuko da, 18:00etan. Ostegunean, berriz, zentxoak ekarriko dituzte, 18:00etan, eta txarangaren kalejirak alaituko du barixaku arratsaldea. Egun horretan Igel toka jokoa ere izango da. Zaturako, berriz, herri kirol saioa antolatu dute (Kalebarren plaza. 11:30), eta domekan, ohi legez, Errosario



kaleko Ama Birjinaren aldeko ezpata dantza dantzatuko dute Haritz dantza taldekoek, 12:00etan.

'La última oportunidad' antzezlanaren ikusteko aukera izango da gaur Mendaron

Glu-Glu produkzioak-ek *La última oportunidad* antzezlanaren ekarriko du gaur Mendarora. Lagunduriko emakuntza bidez ama izan nahi duen emakume baten eta esperma-emale baten arteko harremana kontatzen du, umore puntutik. Julian Iantzi eta Gurutze Beitia dira obrako bi protagonistak. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 22:00etatik aurrera, eta sarrerak salgai daude udal-etxean eta Morroskillo dendan, 10 euroan.



'Arte y moda' erakusketa zabalduko du gaur Emi Nogalesek Elgoibarren

Bi urtean behin egin ohi duen moduan erakusketa zabalduko du Elgoibarren Emi Nogales margolariak. *Arte y moda* jarri dio izenburua eta gaur inauguratuko dute. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da erakusketa ikusgai gaurtik urriaren 18ra. Astelehenetik zapatara zabalduko dute, 18:30etik 20:30era.



Edu Arrillagaren lan bat Bilboko Ercilla hotelean dago ikusgai, 'Visions' erakusketan

Edu Arrillaga argazkilari elgoibartarraren lan bat Bilboko Ercilla hotelean dago ikusgai, Munduko Begiak gobernuz kanpoko erakundeak zabaldu duen *Visions* erakusketaren barruan. Garazteko bidean dauden herrialdeetan lan egiten du Munduko Begiak erakundeak, itsutasuna eragiten duten begiko gaitzak sendatzen. Orain Bilbon zabaldu berri duten erakusketan 60 artista baino gehiago emandako obrak batu dituzte, tartean Edu Arrillagaren emandako argazki bat. Erakusketan, besteak beste, Antonie Tapiés eta Andreu Alfaro, Miquel Barcelo, Jaume Plensa, Manuel Outumuro, Joan-Pere Viladecans eta America Sanchezen lanak ere badaude ikusgai.

Lan horiek guztiak salgai ditu era-



Munduko Begiak erakundeko presidentea eta Edu Arrillaga.

kunde honek eta horiek salduz lortzen duten dirua %100 gobernuz kanpoko erakunde horrek egiten dituen lanak finantzatzeko izaten dira.

Elgoibarko Izarrak 'Daixola!' abiatu du, koadrilan euskaraz egiteko egitasmoa

9-12 urte bitarteko gazteei zuzendutako proiektua da

Koadrilan euskaraz egin eta ondo pasatzeko proiektua jarri du martxan Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunearen Atxutxiamaiak Aisialdi Sailak. Lehen Hezkuntzako hirugarren maila eta seigarren maila arteko ikasleei zuzendutako proiektua da *Daixola*, 9-12 urte bitarteko gaztetxoei, alegia. Euskararen erabilera sustatu, eta adin tarte horietako gazteei planak gauzatzen laguntzeko programa izateko bokazioz sortu dute, eta horretarako, koadrilako 30 euroko kuota ordaindu beharko dute interesatuek ikasturteko (Bi alditan ordaintzeko aukera izango da). Interesatuek urriaren 10a arteko epea dute izena emateko, eta hori bai, izen-emateak koadrilako egin beharko dira. Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko: 943 741 626 (Mikel edo Naiara edo www.elgoibarkoizarra.com).



Aurki plazaratuko du Jon Gurrutxagak bakarkako bigarren lana: 'Hitz lauz'

Euskal musikari askok prest dituzte euren lanak abenduan egingo den Durangoko Azokarako, eta horietako bat da Jon Gurrutxaga. Luze ez dela plazaratuko du *Hitz lauz* (Gaztelupeko Hotsak), bakarkako bere bigarren diskoa. *Hitz lauz* diskoa bere lanik "intimistena" izango dela aurreratu du Jon Gurrutxagak. Jon and Sugramas (Gaztelupeko Hotsak, 2010) aurreko lanean ez bezala, kantuaren arabera musikari ezberdinak erabili ditu Gurrutxagak bakarkako bigarren diskoan: Keu Agirretxeak, Mikel Lagunak (Aiumeen Basoa) eta Patxi Zabaletak (Arima Beltza, Andrakan) grabatu dituzte gitarra elektrikoak, Iñigo Gorritxategik (Lau Mono), Mikel Azkargortak (Merry May & The Muppets) eta Gorka Eskauriazak (Oskorri) baxuak, eta Gurrutxagak berak gitarra akustikoa, bateria eta ahosoinua jo ditu. Kantu guztiak euskaraz grabatu ditu.

Jose Miguel Arranzek irabazi du Mendaroko aire libreko margo lehiaketa

Domekan izan zen Mendaroko aire libreko margo lehiaketa, eta epaimahaiak Jose Miguel Arranz erandioarraren lana saritu zuen 14 urtez gorakoetan. Arranzek 600 euro jaso zituen dirutan. Juan Jose Altuna bergararraren eta Maria Teresa Dura elchearraren lanak ere nabarmendu zituen epaimahaiak, eta 300na euro jaso zituzten sarituek. 14 urtez azpikoetan Kevin Guanok irabazi zuen lehen saria, eta Oña Gallastegik bigarren saria. Aitor Etxeberria eta Aitor Sarasketa margo-lariek osatu zuten epaimahaia.

Sotoko Hotsak musika zikloak izan duen arrakastarekin pozik agertu da Sinuose



Sotoko Hotsak egitasmoaren barruan hiru kontzertu antolatu zituen Sinuosek. Willis Drummond-ek ireki zuen aurtengo musika zikloa, eta 118 lagun batu ziren sotoan. Kontzertua ostegunean izanda hainbeste jende agertu izanarekin oso gustura agertu dira antolatzaileak. Barixakuan Akauzate talde azkoitiarraren txanda izan zen, eta berri ere, ehun lagundik gora gerturatu ziren sotora. Zapatuan jende gutxiago izan zen Unicornibot talde galziarraren kontzertuan, baina oro har, zikloaren balorazio positiboa egin du Sinuosek: "Elgoibarko jendeaz gainera, inguruko herrietatik ere etorri dira ikusleak, eta horrek erakusten du Sotoko Hotsak zikloak inguruko herrietan ere hartu dela oihartzuna", adierazi dute Sinuoseko kideek.

Sinuosek lan handia egiten du hiru eguneko musika ziklo hori antolatzeko, baina urtetik urtera jende gehiago erakartzen dute, eta alde horretatik oso pozik agertu dira. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete bai zikloan parte hartu duten taldeei eta baita kontzertuez gozatzen hurbildu diren lagunei ere.

Iñigo Larizek eta Nerea Lendinezek irabazi dute Aiastiarako korrika igoera

26 korrikalarik hartu zuten parte

San Migel jaien barruan Aiastiarako korrika igoera jokatu zen domekan, eta Iñigo Lariz (20:34) eta Nerea Lendinez (28:00) izan ziren irabazleak.

26 lagun irten ziren Kalegoen plazatik Aiastiako frontoirantz, eta hasieratik bi antxitxikari nabarmendu ziren: Iñigo Lariz elgoibartarra eta Pello Osoro eibartarra. Triatloietan aritzen den atleta eibartarrak estu hartu zuen Lariz, eta onena ematera behartu zuen elgoibartarra. Hirugarren postuan Jon Larrañaga mendarozarra sailkatu zen.

Aiastiarako igoeran lortu duen bigarren garaipena da honakoa Larizentzat, 2012an ere berak irabazi zuen-eta proba. Probaren errekorra, berriz, Asier Cuevas antxitxikari eibartarrak ezarri zuen 2010ean, 18:35 denborarekin.

Emakumezkoen dagokionez, Nerea Lendinez izan zen azkarrena. Hogeita zortzi minutuan egin zuen igoera Lendinezek. Emakumezkoetan Nerea Amilibiak dauka probaren errekorra (24:09).



Lehen mailako Zaragozaren kontra jokatu du Concepto Egilek Kopako bigarren kanporaketa



Errege Kopako lehen kanporaketa gainditu du Concepto Egile areto futbol taldeak, Iruñeko San Juan taldearen kontra 2-1 irabazita. Lehen zatia amaitzeko bost minutu falta zirenean aurreratu ziren markagailuan elgoibartarrak Gabi Alijartek sartutako gol bati esker, baina berdintzea lortu zuten iruñearrek. Bigarren zatian erdialdera bigarren gola sartu zuen Gabi Alijartek; garaipenaren gola eta sailkapen historikoa bideratu zuen gola. Izan ere, talde gipuzkoar batek Errege Kopan lehen kanporaketa gainditu duen aurreneko aldia izan da hau. Bigarren kanporaketa lehen mailako Zaragoza taldearen kontra jokatu du. Urriaren 14an izango da norgehiagoka, Olaizaga kiroldegian. Partida bakarrera jokatu da kanporaketa hau ere, beraz, irabazten duenak aurrera egingo du eta bestea txapelketatik kanpora geratuko da.

Ordutegi berriak Kirol Patronatuko ikastaroetan

Udal Kirol Patronatuak hainbat jarduera berri jarri ditu martxan ikasturte honetan, eta arduradunek jakinarazi dutenez, harrera oso ona izan dute. Hori dela eta, ordutegi berriak eskainiko dituzte urritik aurrera: K-Stretch ikastaroan hiru talde osatu dira, eta beste bi talde berri sortuko dituzte; bata ostegunetan 18:00etan, eta bestea, ostiraletan goizeko 10:10ean.

Gimnasia hipopresiboan ikastaroetarako lau talde osatu dira dagoeneko, eta beste lau ordutegi berri eskainiko ditu Patronatuak: asteartetan 18:00etan eta 20:10etan, eta ostegunetan 18:00etan eta 21:00etan. Pilates ikastaroko, bestalde, bederatzi talde osatu dira, eta beste bi talde berri osatzeko aukera eskaini dute: asteartetan 21:00etan eta ostegunetan 20:15ean. Azkenik, Zumba ikastaroan sei talde osatu dira, eta astelehenean eta asteazkenean, 19:15etan talde berri bat osatzeko aukera eskaintzen du Patronatuak. Informazio gehiago Olaizaga kiroldegian.

Arkaitz Egañak irabazi du Gipuzkoako ehiza xehe txapelketa

Azaroaren 2an Euskadiko txapelketan hartuko du parte

Debabarreneko ehiza xehe txapelketa irabazi ostean, Gipuzkoako txapelketan hartu zuen parte Arkaitz Egañak joan zen domekan, eta berak jantzi zuen txapela. Zanbranako El Castillo ehiza barrutian jokatu zen txapelketa, eta probintziako 26 ehiztari onenek hartu zuten parte senior mailan. La Union elkarte-ko Arkaitz Egañak lortu zuen puntuaziorik handiena, zortzi eper botata, bigarren postuan sailkatu zen Iñigo Gisasola eibartarrak baino hiru eper gehiago, alegia. Andoian-go Ontza ehiza elkarte-ko Francisco Llamas, -2011ko txapelduna- sailkatu zen hirugarren postuan lau eperrekin. Arkaitz Egañaz gain, Iraitz Txurruka elgoibartarrak ere parte hartu zuen proban eta 13. postuan sailkatu zen.

Emakumezkoetan Ixone Juaristi ehiztari elgoibartarra hirugarren postuan sailkatu zen, eper bat botata. Mari Jose Carrertero izan zen onena emakumezkoetan. Eper bat eta bi faisai bota zituen. Juniorretan eta beterranoetan ere hartu zuten parte La Unioneko ordezkariak. Gaztetxoan



artean 8. postua eskuratu zuen Ivan Rogelek, eta 5. postuan sailkatu zen Jose Mari Egaña beterranoetan.

Azaroaren 2an Euskadiko ehiza xehe txapelketan parte hartuko du Arkaitz Egañak, Santa Cruz del Fierro (Araba). Iaz txapeldunorde izan zen Egaña, eta 2011n Euskadiko txapeldun.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 2 – Ostadar 0 (Ohorezko erreg.)

Zarautz 1 – Elgoibar 0 (Erreg.)

Zestoa 1 – Elgoibar 2 (Jub.)

Amaiak Bat 5 – Elgoibar 2 (Kad. A)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Aurrera Saiaz 22 – Lagunak 5 (2. mailako nag.)

Pala

Lagunak 25 – Loiolatarra 17 (2. mailako nag.)

Lagunak 22 – Euskal Jolas 10 (Jub.)

Azkoitia 25 – Lagunak 24 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Colo Colo 9 – Concepto Egile Elg. 5 (2B)

ESKUBALOIA

Astigarra Elg. 21 – Bera Bera 32 (Jub. nes.)

Tecnifuelle Elg. 23 – Bera Bera 18 (Kad. nes.)

Alcorta Elg. 22 – Arrasate 21 (Sen. mut.)

Lauro Elg. 24 – Basauri 17 (Sen. nes.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 5

12:30 Concepto Egile Elg. – Sala Quinto (2B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 4

10:00 Elgoibar – Lagunak (Kad. A)

12:00 Elgoibar – Urki (Jub.)

16:30 Elgoibar – Tolosa (Jub.)

PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 3

Pala

20:15 Lagunak – Atxurbide (2. mailako jub.)

Eskuz

21:00 Lagunak – Hernani (2. mailako jub.)

22:00 Lagunak – Behar zana (1. mailako nag.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 4

9:30 Bankoa Elg. – Saieko (Kad. mut.)

11:00 Beristain Elg. – Saieko (Jub. mut.)

12:30 Gabaz Elg. – Leizaran (Sen. mut.)

17:45 Deca Elg. – Ormaiztegi (Kad. mut.)

Domeka, 5

9:15 Ikus Elg. – Ermua (Inf. nes.)

10:15 San Roke Elg. – Ermua (Inf. nes.)

11:00 Cometel Elg. – Ermua (Inf. nes.)

Xake txapelketa antolatu du Mekatar taldeak



Mekatar-Iriondo xake txapelketaren hirugarren edizioa antolatu du Elgoibarko Xake Taldeak. Dagoeneko 22 lagunek eman dute izena, baina oraindik zabalik dago izena emateko epea. Datorren martitzean egingo dute partiden zozketa 20:00etan, eta nahi duenak ordura arte eman dezake izena Iriondo tabernan. Bikote bakoitzak astero partida bat jokatu du, bikoteak adosten duen ordutegian. Txapelketari buruzko argibideak zozketa egunean emango dituzte Iriondo tabernan bertan. Txapelketan parte hartzeko ez da ordaindu behar.

ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 636 310 711
- Etxea alokatzen dut, Ubitarten. Berritua, altzariek. Bi logela, egongela eta sukalde-jangela handia. Igoailuarekin. ☎ 943 742 442
- Bi logelatako etxea alokairuan, Maalan. Eguzkitsua, igogailuarekin. ☎ 652 716 724

LANA

ESKAERA

- Emakumea adinekoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 608 523 426
- Emakumea adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 603 740 755
- Gizona lan bila: sukaldari, adinekoak zaintzen, tornuan, fresadoran... ☎ 633 892 829
- Geriatria laguntzailea, adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 646 931 162
- Gizona eskaintzen da eraikuntza, margotzaile edo garbitzaile lanetarako. ☎ 677 866 495
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egin, sukalde laguntzaile edo etxeko lanetarako. ☎ 678 292 120
- Emakumea lan bila. Esperientzia garbiketarako egiten eta adinekoak zaintzen. ☎ 637 966 749
- Neska eskaintzen da adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 617 571 210
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. ☎ 677 259 560
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. ☎ 606 354 982
- Emakumea lan bila. ☎ 634 709 827
- Emakumea adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Ordutegi malgua. Asteburuetan ere. ☎ 638 338 816

- Emakumea adinekoak, ezindua zein umeak zaintzeko prest. ☎ 688 901 667
- Emakumea adinekoak zaindu eta garbiketarako lanak egiteko prest. ☎ 690 925 929
- Gizona eskaintzen da garbiketarako egin eta adinekoak zaintzeko. ☎ 602 057 896
- Emakumea garbiketarako lanak egiteko edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ 690 064 225
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ 609 947 694
- Pedikura eta manikura egiten dut etxetik. ☎ 639 423 493
- Emakumea asteburuetan garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko prest. ☎ 639 423 493
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ 633 808 931
- Gizona lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia. ☎ 628 740 765
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Interna ere bai. ☎ 653 128 080 / 688 265 402
- Neska lan bila. Tabernan, garbiketarako egiten eta umeak zaintzen esperientzia. ☎ 677 216 767
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan adinekoak zaintzeko. Interna ere bai. ☎ 602 186 462
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Egunez zein gauetz. ☎ 680 121 252
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zein adinekoak zaintzeko. Interna ere bai. Klinikako laguntzaile tituluekin. ☎ 688 826 968
- Mutil euskalduna eskaintzen da goizetan lan egiteko. Filosofian lizentziatua. ☎ 678 155 803

ESKANTZA

- Elektrikari, iturgin edo antzeko ofizioetan esperientzia duen pertsona behar da. CV bidali argazkiarekin: ezenarro13@gmail.com

- Kirol enpresa batek monitoreak behar ditu, Debabarreneko kiroldegietan spinning, pilates, K-Stretch, hipopresiboak... emateko. elgoibar@bpxport.es
- Elgoibar Ikastolak eraikuntzen mantenuan eskarmentua duen langile elgoibartarra eta euskalduna behar du, jardun erdiz. CV bidali: elgoibar@elgoibarikastola.net. Erref.: Mantenua

BESTERIK

- Txakur kumeak opari. ☎ 943 743 032

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Bi autorentzako lekua duen garajea salgai Maalan. Eraikin berria. ☎ 622 488 667
- Garaje marraduna alokatzen da Lekuederren. ☎ 652 716 724

PARTIKULARRAK

- LH, DBH eta Batxilergoko eskolak ematen ditut. Matematika, kontabilitatea... ☎ 666 042 710
- Magisteritzan diplomatuak laguntza klaseak emango litzuke. Esperientzia handia hezkuntzan eta ulermen arazoetan. ☎ 696 295 098
- Neska euskaldunak partikularrak ematen ditu. Edozein ikasgai. EGA titulua daukat. ☎ 659 024 427
- Ingeniari mekanikoak DBHko klase partikularrak emango litzuke. EGA eta First titulua ditut. ☎ 676 722 556
- Ingeles Filologia ikaslea edo lizentziatua behar da, DBHko ikasle bati eskolak emateko. ☎ 650 011 441



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



70 urteko senide batek etxebizitza saldu nahi dit, baina hil arte han bizi nahiko luke berak. Hasteko, 20.000 euro emango dizkietela adostu dugu eta gero hilero, hil arte, 200 euro emango dizkiodala. Zalantza daukat etxebizitza eskuratu eta Jabetza Erregistroan erregistra dezakedan, eta era berean, ez dakit ze diru kopurutan eskuratu behar dudan.

Biziarteko errentako operazioa da zuk egin nahi duzuna, eta ez salerosketa operazio ohiko bat. Etxea saldu nahi dizun senide horrek etxearen gozamina du hil arte, eta zuri ematen dizu etxe hori, baina biziarteko usufuktua bere eginez.

Zuk hileko errenta dirutan ordainduko diozu eta errenta hori urtero berritu beharko duzu, Kontsumo Prezioen Indizearen arabera edo erreferentziakotzat har daitekeen beste indize objektibo baten arabera. Errenta hori hutsik egin gabe ordaindu beharko diozu hilero, bestela kontratua eteten delako eta etxebizitza horren jabe bera izatera pasatuko delako berriro.

AHOLKUA: Zerga balorazioaren ikuspuntutik, Ogasunak uste badu osotara etxebizitza horrek zuk hilero kapitalizatzen duzun errentek baino gehiago balio duela, Dohaintzen gaineko Zerga ordaintzea exjitu dieza-zuke, Ondarean Transmisiorako Zerga beharrean.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Jakes!** Muxu handi bat etxeko guztion partez. Segi beti bezain ganberro!



• Zorionak, **Elene**, astelehenean 9 urte beteko dituzulako. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak **gure gizon-txuari**, Edu, Marimar eta Juliaren partez.



• Zorionak, **Unai**, gaur urtebete egingo duzulako. Muxuak familiako guztien partez, bereziki Sare eta Jareren partez.



• Zorionak, **Elene**, igandean 5 urte beteko dituzulako. Piku baino gehiago maite zaitugu.



• Zorionak, **Mikel**, gaur 5 urte potolo betetzen dituzulako. Ondo-ondo pasa zure familiako en partez, eta bereziki Noraren partez.




• Zorionak, **Jon**, astelehenean 8 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat, etxeko en partez, eta bereziki, Maialenen partez.



• Zorionak, **Elene**, 4 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat familia osoaren partez eta bereziki Maria, Maialen, Xabat eta Julenen partez.



• Zorionak, **Malen**, igandean 5 urte beteko dituzulako. Familia osoaren eta bereziki zure anaia Unax eta lehengusina Naroaren partez.



• Biharko eguna primeran pasa dezazuela opa dizuegu etxekook. Muxu asko, **Josune eta Gorka!**



• Zorionak, **hirukote!** Bederatzi urteko ospakizun ona! Muxuak.




• Zorionak, **Paul!** Bihar 3 urte! Muxu potolo bat, guztion partez.



• Zorionak, **Acian eta Axel**, zuen lehenengo urtebetetzean. Maitasun handiz amatxoren, aita-xoren, Hugoren eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **bikote!** Gaur 50 urte ezkondu zinetela. Familia osoaren partez, muxu handi bana.



• Ez egin parranda handia. Bihar ospatuko dugu zuen eguna. Zorionak, **Irune eta Javi**. Ihintza eta Aiorak.



• Zorionak, **Ander!** Muxu handi bat, etxeko en partez.



• Zorionak, **Iker**, urriaren 1ean 7 urte egin zenituelako. Muxu asko, familiako guztien partez!

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Zorionak eta eskerrik asko guztioi bazkarian parte hartzeagatik. Hurrengora arte!

3 barixakua

Erakusketa

18:30 'Artea eta moda'

Emi Nogalesen lanen erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean, hilaren 18ra arte.

Hitzaldia

20:00 Energia beriztagarriak

Alain Ulazia eta Pablo Rodriguezek emango dituzte hitzaldiak, Mendaroko udaletxean.

Bideo forum

21:30 'Liya forever'

Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du bideo forum saioa. Kafea hartuko dute lehenik, eta 22:00etan hasiko da filma. Kultur Etxean.

Antzerkia

22:00 'La última oportunidad'

Mendaroko San Agustin kulturgunean.

4 zapatua

Feria

10:30 Stock feria

Txankakua elkarteko merkatariek kalera aterako dituzte euren produktuak. Lekueder parkean.

5 domeka

Irrati aktibazioa

9:00 Makina-erremintaren

mendeurrena

GARE-EILT irratizaleak irradi aktibazio berezia egingo dute IMHko museotik.

Dolmenen ibilbidea

9:00 Bisita gidatua

Karakate-lurkurutzeta arteko dolmenen ibilbidean bisita gidatua egingo dute, gaztelaniaz. Interesatuak telefono honetara deitu behar dute: 695 783 656 / 943 779 128

10 barixakua

Antzerkia

20:30 'Happy end'

Vaiven produkzioak taularatuko du, Herriko Antzokian.

ERROSARIO KALEKO JAIK

7 MARTITZENA

13:00 Errosario kaleko
Ama Birjinari lore eskaintza
20:00 Salbea

10 BARIXAKUA

18:00 Txaranga
19:00 Igel toka txapelketa
20:00 Luntxa

8 EGUAZTENA

17:30 Txokolate jana
18:00 Kiribil

11 ZAPATUA

11:30 Herri-kirolak

9 EGUENA

18:00 Zezentxoak

12 DOMEKA

12:00 Errosario kaleko
Ama Birjinari eskainitako
ezpata dantza



ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«El niño»

3, barixakua: 22:15
4, zapatua: 19:00 / 22:15
5, domeka: 19:00
6, astelehena: 21:30

«Tarzán»

5, domeka: 16:30

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
3 Ibañez 4 Fernandez Goizez: Barrenetxea 5 Fernandez 6 Yudego 7 Zabaleta 8 Barrenetxea 9 Ibañez 10 Garitaonandia	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko ambulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

Ostiral honetan, 17:00etatik
19:00etara HERRI KIROLAK,
ZEZENIKLETAK ETA
BURUHANDIAK Leku Ederreko
karpan, HH5-LH6 bitarteko
herriko haur guztientzat



Urriaren 11n,
GAZTE EXPRESS
ekintza berezia
2002an jaiotako
erabiltzaileentzat

BIDERKATU EUSKARA

Mintzalagunen magiarekin

euskaraz hitz egiteko

Tertuliak

Izena emateko azken eguna:

URRIAK 10

INFORMAZIOA:

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea
 Ubitarte, 4, behea
 943 741 626
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com



INFORMAZIOA:
 Elgoibarko Izarra euskaltzaleon topagunea
 Ubitarte, 4, behea
 943 741 626 | elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

OSASUN GIDA






<p>OPTIKAK</p> <p>65\07 IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA</p> <p>Egunero: 9:30-13:00 16:30-20:00</p> <p>San Bartolome, 10- Elgoibar Tel: 943 743 734</p> <p>183\12 UZURI</p> <p>- Optometria - Kontaktologia</p> <p>Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00 San Frantzisko, 21</p> <p>Elgoibar - Tel: 943 740 359</p>	<p>HORTZ KLINIKAK</p> <p>171\12 LEKU EDER</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diagnostiko digitala - Estetika - Kirurgia eta inplanteak - Ortodontzia: haurrak eta helduak - Protesiak: finkoak eta eraginak - Odontologia orokorra - Higienea eta prebentzioa - Periodontzia (entzien tratamendua) - Haurrentzako tratamenduak - PADI <p>Elena Herrero Lobo Aita Agirre enparantza, 5 behea - Elgoibar Tel: 943 530 053 lekueder@infomed.es</p>	<p>OTORRINOLARINGOLOGIA</p> <p>183\12 UZURI</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entzumen protesia - Tapoiak neurritara (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...) - Audiometriak - Audifonoak - Tonometria <p>Egunero: 9:30-13:00/ 16:30-20:00</p> <p>San Frantzisko, 21 - Elgoibar Tel: 943 740 359</p>	<p>FISIOTERAPIA</p> <p>271\12 AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Fisioterapia eta osteopatia - Eskuterapiak - Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa) - Taping neuromuskularra <p>Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar (Gipuzkoa) Tel.: 943 531 953 Tel.: 669 565 745</p> <p>177\12 fisio&más</p> <p>Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Esku-terapia. - E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura) - Esku Drainatze linfatikoa (DLM). 	<ul style="list-style-type: none"> - Mesoterapia homeopati-koa: + Traumatologia. + Estetika (zelulitisa, es-triak) <p>Osasunerako ariketa agin-dua (Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)</p> <p>Entrenamendu gidatua</p> <p>Pilates makinak (erabilitazioa) 3 pertsona gehien.</p> <p>Txirindulariaren biomekani-ka (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)</p> <p>Trenbide kalea 13, behea. Tel.: 943 740 191 667 953 628</p>
---	--	--	--	---



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilmon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

